

Inbertsio-politika (laburpena)

Funtsak %45 eta %90 bitartean errenta aldakorrean inbertituko du, zuzenean edo zeharka IKEen bitartez. Gainerako zatia errenta finkoan inbertituko da, barne hartuz gordailuak eta dirumerkatuko tresnak, kotizazioakozan ala ez, likidoak badira betiere. Aldez aurretik ez da ezer erabakitzen jaulkitzaileei buruz, edo baloreek kotizatuko duten herrialde edo merkatuei, jaulkipenen nahiz jaulkitzaileen ratingari, dibisa-arriskuari, zorroaren batez besteko iraupenari, burtsako kapitalizazioari edo sektore ekonomikoari buruz.

*Funtsak, bere inbertsioekin, ingurumen alderdiak eta/edo alderdi sozialak sustatzen ditu (2019/2088 (EB) Erregelamendua 8. artikulua) eta kontrako gorabehera nagusiak (inbertitzen dituen enpresek ingurumenaren eta/edo gizartearen eragindako inpaktu negatiboak) arriskuen azterketan eta inbertsio-erabaketan txertatzen ditu.

*Inbertsio-politikaren azalpen xeheagoa funtsaren IFD dokumentuan ikus daiteke.

*FUNTS HONEK %55 INBERTI DEZAKE ERRENTA FINKOKO KREDITU-KALITATE TXIKIKO Jaulkipenetan, ETA, BERAZ, KREDITU-ARRISKU OSO HAUNDIA DAUKA.

Ezaugarri Orokorrak

2024/12/31ra

Ordarea:	131.961.367,14
Komisioak guztira:	%1,85
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbolto Komisioa:	%0,00
Fondo mota:	NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKORRA
Arrisku-profila:	4 1-etik 7- rako eskalan
Inbertsiorako gutxieneko epea:	4 urte

2024/12/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	3 urte	5 urte
-%0,85	-%0,13	%8,42	%8,42	%0,72	%4,24

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2024	2023	2022	2021	2020	2019
%8,42	%14,15	-%17,43	%14,71	%4,97	%19,49

*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2024/12/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%7,40
Lurrunkortasun 3 urte**	%10,99

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoen antzinasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.


KUTXABANK GESTION ACTIVA INVERSION, FI CLASE ESTANDAR




Hileko iruzkina

2024ko laugarren hiruhileko munduko panoraman Donald Trumpen garaipena izan da aipagarriena, AEB-ko hauteskunde presidentzialetan. Merkatuak baikortasunez hartu zuen garaipena, nahiz eta jakin bazekien jokoan faktore ugari zeudela. Bereziki pizgarri fiskaleko neurrien, muga-zergen eta immigrazioaren kontrolen arteko orekak benetako hazkuntza baino inflazio handiagoa eragingo balu, horrek FEDaren lana zailduko bailuke. Oraingoz, horrek ez du eragotzi interes-tasak jaitea, nahiz eta zuhurtziaz jokatzeko duen etorkizuneko jaitsieretara begira, oraindik entitateak nahi dituen maila altuetan dagoen inflazioarekin. Bien bitartean, Europa ahulean, prezioak moneta-agintarien helburuekin gero eta lerrotatuago daude eta BCEk, ondorioz, onartu du ez dela behar jarrera murriztailerik. Hala, Lagardek tasak % 3ra jaitsi ditu, etorkizunean tasen murrizketa gehiago egongo direnaren ustea berretsiz, baina datu ekonomikoaren mendeko ikuspegi batekin. Finantza-baldintzak lasaitzeko laguntzak eta erosteko ahalmena berreskuratzeko kontsumoa hobetzeko itxaropenak datorren urterako Eurogunearen susperraldi neurritsuaren eszenatokia sostengatzen dute, erronkaz bete, bai Txinaren mehatxu komertzialengatik, bai Txinaren ahultasunagatik. Horri, Europar Batasuneko bi ekonomia nagusiek bizi duten ziurgabetasun politikoa eta funtsezko industria-sektoreak babesteko erronkak gehitu behar zaizkio, hala nola automobilgintza. Eta bitartean, argi dago Txinan beharrezkoak izango direla beste esku-hartze batzuk, pizgarri eta arau-aldaketa gisa, higiezinaren krisiari aurre egiteko eta familien konfiantza berreskuratzeko. Azken aldiari Txinaren izan dituen zailtasunak ez dira islatu modu berean garapen bidean dauden gainerako eskualdeetan, non friend-shoring-eranzko (merkataritzaren erregionalizazioeranzko joera) joerak eta munduko merkataritzaren berregituraketak leku onean uzten dituen besteak beste Vietnam, Mexiko edo India, inbertsioa piztu duten hazkuntza aurreko barne-politikei esker. Errenta aldakorrek jardura sendoa utzi du 2024an, eta AEBko burtsaren eta munduko gainerako arto desadostasun argia. Amerikako ekonomiaren egungo egoerak maximo historiko berrietara eraman ditu indizeak, % 20tik gorako aurrerapenen ondorioz. Europako indizeek ere igoerak izan dituzte, nahiz eta Amerikakoak baino txikiagoak izan. Aurrera gehien egin dutenen artean, Ibexa (+% 14,8), bankuak izan direlarik babesle nagusiak, DAX alemana (+% 18,8), Siemensen akzioen joera onari esker, zeina besteak beste, akulu izan duen. Bitartean, gorantz doazen merkatuek, Trumpen garaipenak eta haren muga-zerga posibilek presionatuta, garatutako herrialdeen merkatuen atzetik bukatu dute. Bestetik, errenta finkoan, epe laburreko zorren errentagarritasunak bakarrik jarraitu dute jaisten. Epe luzeagokoek, aldiz, igoera izan dute Atlantikoaren bi alboetan. Azkenik, dolarra % 6 sendoago bukatu du, euroarekiko 1,035\$-tan kotizatuz.

Zorroaren banaketa



Errenta aldakorrek zorroaren banaketa geografikoa



Dokumentu honen xedea informazio ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza pertsonalizatua, ez eskaintza, eta ezta eskaera ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharreko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantza-tresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, funtsaren eskuratzeko balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, entitate komertzializatzaileen webgunean eta CNM-ren erregistroetan kontsulta daitezke.